


# ORMAIZTEGIko

## IRISGARRITASUN UNIBERSALEKOPLAN

### INTEGRALA

2024



## 4. LIBURUKIA

### ESPARRUA: GARRAIOA



ORMAIZTEGIKO UDALA

Egileak:



Javier Regalado Herrero  
Itziar RodríguezOyarbide



LURRALDE PLANGINTZA,  
ETxebizitza  
ETA GARRAIO SAILA  
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN  
TERRITORIAL, VIVIENDA  
Y TRANSPORTES



# ORMAIZTEGIKO IRISGARRITASUN UNIBERTSALEKO PLAN INTEGRALA

## PLANAREN AURKIBIDE OROKORRA

- |  |              |
|--|--------------|
| 1.- ALDERDI OROKORRAK ETA ARAUDIA.....       | 1. LIBURUKIA |
| 2.- ESPARRUA: BIDE PUBLIKOA.....             | 2. LIBURUKIA |
| 3.- ESPARRUA: UDAL ERAIKINAK.....            | 3. LIBURUKIA |
| 4.- ESPARRUA: GARRAIOA.....                  | 4. LIBURUKIA |
| 5.- ESPARRUA: KOMUNIKAZIOA ETA SEINALETIKA.. | 5. LIBURUKIA |
| 6.- PLANAREN SINTESIA.....                   | 6. LIBURUKIA |
| 7.- KUDEAKETA ETA KOMUNIKAZIO PLANA.....     | 7. LIBURUKIA |

## **4.-ESPARRUA: GARRAIOA**

### **LIBURUKIAREN AURKIBIDE**

#### **1.- AURKEZPENA**

#### **2.- AZTERTZE EREMUA**

#### **3.- EGUNGO EGOERAREN ANALISIA ETA DIAGNOSIA**

3.1.- Autobus- lineak

3.2.- Autobus geltokiak

3.3.- Erreserbatutako aparkaleku plazak

#### **4.- JARDUKETA - PLANA**

4.1. ESKU-HARTZE PROPOSAMENA

4.1.1.- Autobus geltokiak

4.1.2.- Erreserbatutako aparkalekuak

4.1.3.- Aparkaleku Erreserba Plana

4.1.4.- Laburpena

4.2. LEHENESTEKO IRIZPIDEAK

4.3.- ETAPA PLANA

#### **5.- BALORAZIO EKONOMIKOA**

**ERANSKINA: Aparkaleku eta Geltoki txostenak**

#### **DOKUMENTAZIO GRAFIKOA**

## 1.- AURKEZPENA

Garraioa udalerrri irisgarri baten zutabeetako bat da. Pertsona guztientzat irisgarriak diren garraio publikoko sistemak proiektatzeak eta eraikitzeak esan nahi du edonor sartu, erabili eta utzi ahal izatea sistema, segurtasun-, erosotasun- eta eraginkortasun-baldintzetan.

Mugikortasun eta komunikazio mugatua duten erabiltzaileen eskakizunak beste pertsona guztien berdinak dira: garraio publiko bizkor, eroso, seguru eta ekonomikoa izatea.

Mugikortasun urriko pertsonen proportzio handi bat adindunak dira. Beraien garraio beharrak jarduera pertsonalak, domestikoak eta aisialdikoak dira eta beste agure guztiek izaten dituzten toki eta eguneko momentu berean gertatzen dira. Ezin dugu ahaztu, adin horretako pertsonen jarduerak eta desplazamenduak askotarikoak direla, euren jarrera psikiko eta mentalak bezala. Jarduera horietako batzuk ordutegi malguak izan ditzakete – erosketak, familia eta lagunei bisitak-, beste batzuk, ordea, alde aurretik finkatuak daude, adibidez, medikuari bisita edo ospitalera joan beharra.

Orokorrean, mugikortasun problemak dituzten pertsona gazteagoak, bere adineko pertsonak bezala, lanera joan behar dute, beharrezko eguneroko zereginak eta familia bizitza egin eta aisialdirako eta denbora librerako hainbat jarduera praktikatu ere. Beraien desplazamendu beharrak premiazkoagoak eta denboran mugatuagoak izan daitezke, jubilatutako dauden pertsonen kasukoak baino, eta agian, mugikortasun problemarik ez dituzten gazteen kasukoak baino larriagoak.

Bestalde, argi dago mugikortasun-arazoak dituzten pertsonen laguntzen dieten ibilgailuen egokitzapenak lagundu egiten dutela, oro har, gainerako bidaiariei garraioen erabilera errazten, eskaintako zerbitzuaren kalitatea murriztu gabe.

Mugikortasun-arazoak dituzten bidaiariek ere erabiltzeko egokitutako garraio klasikoak egoteak murriztu egiten du urritasun larria duten pertsonen eskura geratu behar duten zerbitzu berezien kopurua. Zerbitzu bereziak soilik erabiliko dira ohikoak diren zerbitzu publikoak eskaini ezin dituzten joan-etorriak egiteko.

Hiriguneko eta hiriarteko autobusak dira garraio sistema nagusiak. Erakunde guztien

konpromisoa izan beharko da ahalik eta hiritar gehienei iristen den zerbitzua eskaintzea, bizkortasuna, ekonomia eta erosotasun berme hoberekin. Helburu horiek aintzat harturik lana egin beharko da, etorkizunean, pertsona ororentzako hiri irisgarri bat lortzeko.

Garraioari buruzko azterketa egiteko, lan-sistematika bat aplikatu da, eta horren bidez identifikatu, aurkitu, erreproduzitu, konpondu eta ekonomikoki kuantifikatu nahi dira garraio erregularreko lineetako autobus-geltokietako edozein erabiltzailek, elementu estatikoak barne, sarbide publikoa duen edozein puntutaraino iristea ahalbidetuko liokeen balizko ibilbide batean aurki ditzakeen egoerak edo oztopoak. Halaber, mugikortasun urria duten pertsonentzat erreserbatutako aparkaleku plazak erabiltzerako momentuan izan ditzaketen egoerak ere aztertu dira.

Liburuki honen edukiak lan horren emaitzetan zentratzen dira, hau da, aurkitutako oztopo eta gabezien diagnostiko bat, beharrezko jarduketekin batera, horien balorazio ekonomiko batekin batera. Hona hemen jarduketa-plan honen dokumentazioa:

- **Erabilerarako jarraibideak**

Liburuki hau nola erabili behar den azaltzen du. Garraiorako Ekimen Planean jasotako jarduketaren informazioa nola kontsultatu behar den deskribatzen du.

- **Aztertze eremua**

Hiri eskumena duten aztertutako elementuak zehazten dira: autobus geltokiak eta mugikortasun mugatua duten pertsonentzako erreserbatutako aparkalekuak.

- **Egungo egoeraren analisisa**

Garraio linea ohikoak deskribatzen dira eta autobus geltokien eta hauek osatzen dituzten elementu estatikoen egoera, baita mugikortasun mugatua duten pertsonentzako aparkaleku erreserbatuak ere.

- **Jarduketa proposamenak**

Autobus parada eta erreserbatutako aparkalekuetan egin beharreko jarduketak proposatzen dira. Hiribarneko eremuen azterketa eta aparkaleku erreserbatu kokapen berrien proposamena inguruan.

- **Etapia plana**

Etapia planaren deskribapena da, hau da, etapa bakoitzean dauden elementuen zerrenda, bakoitzaren diagnostikoa, soluzio proposamena eta kostuarekin..



- **Gutxi gorabeherako aurrekontua**

Proposatutako egokitzapenak gauzatzeko behar diren obren balorazio ekonomikoa da. Garraioari dagokion aurrekontuen laburpena.

- **Eranskina: Autobus geltoki txostenak**

Aztertutako autobus geltoki guztien txostenak. Txosten hauek geltokien datuak dituzte, irisgarritasunari buruzko diagnostikoa, esku-hartzeen proposamenak, eta egokitzeko behar diren obren aurrekontu zehaztuak, aipatutako irizpideen arabera.

- **Eranskina: Erreserbatutako aparkaleku txostenak**

Mugikortasun mugatua duten pertsonentzat erreserbatutako aparkaleku guztien txostenak. Txostenak dituzten plazaren datuak, irisgarritasunari buruzko diagnostikoa, esku-hartze proposamena, eta bakoitza egokitzeko behar diren aurrekontu zehaztuak, aipatutako irizpideen arabera.

2010. urtearen hasieran, Gobernu Zentraleko Etxebizitza Ministerioak, VIV/561/2010 Aginduaren bitartez, urbanizatutako espazio publikoek bete behar dituzten gutxieneko baldintzak ezartzen ditu. Ondoren, arau hori 2021an indargabetu zuen uztailaren 23ko TMA/851/2021 Aginduak, dokumentu teknikoa eta espazio publiko urbanizatuen erabilera garatzen dituenak. Bertan, mugikortasun urriko pertsonentzako aparkalekuak, bidegorriak edo oinezkoentzako ibilbideen gaineko ibiak nolakoak izan behar duten azaltzen da.

Horrek guztiak behartzen gaitu azterketa guztia egitera, kontuan hartuta Ministerioaren gutxieneko araudia (TMA/851/2021 Agindua) eta aurretik indarrean zegoen 68/2000 Dekretuaren autonomikoa, autobus-geltokietako eta erreserbatutako aparkalekuetako irisgarritasuna ere arautzen duena.

Beraz, Irisgarritasun Unibertsaleko Plan Integral honetan garraio-azpiegiturak aztertzeke estrategia bi araudiak eta horien preskripzioak kontuan hartzea izan da, eta irisgarritasunari dagokionez, bermerik handiena aukeratu da bi araudien artean kontraesanak hauteman diren kasuetan.

## 2.- AZTERTZE EREMUA

Plana udal kudeaketarako erreminta izanik, udalak eskumena duten alderdiak soilik aztertu dira. ORMAIZTEGI ez du garraio-linea propiorik edo udalak kudeatzen dituenik. Lurraldebusko hiru lineak, ordea, udalerrari zerbitzua ematen diote, baina kudeaketa mailan ez daude udalaren menpe.

Garrantzitsua da azpimarratzea ORMAIZTEGI trenbideak ere zerbitzatu duela, Irun eta Madril lotzen dituen ADIF linea udalerritik igarotzen baita. Hori dela eta, Donostiako aldirietako geltoki bat dago herrigunean. Trenak ORMAIZTEGI lotzen du Urola Garaiko udalerrikin, Oria ibaiaren ardatzean daudenekin eta Donostialdeko eta Oarsoaldeko udalerrri nagusiekin. Udalak ez du eskumenik trenbide-azpiegituraren beraren gainean, ez eta aldiriko linearen gainean ere, eta, beraz, ezin du horietan obrarik sustatu. Beraz, Irisgarritasun Plan Integral hau geltokirako sarbidea aztertzea mugatu da (geltokia ADIFen jabetzakoa da), eta ez da sartu ez geltokiaren egituran, ez geltokiaren trenbide-lineen egituran.

Garraioari dagokionez, Udaleko arduradunekin izandako komunikazioetan ezarri zen jarduera-eremuarekin bat etorriz, azterketan sartzen dira autobus-geltokiak eta mugikortasun urria dituzten pertsonentzako erreserbatutako aparkalekuak, plan honen xede den hiri-eremuan.

Irizpide hau kontuan izanez gero, garraioaren atalean, berariazkoak diren autobus-lineako elementu estatikoak (markesinak eta geltoki-zutoinak) eta seinaleztapena, eta erreserbatutako aparkalekuetako neurriak aztertzen dira, betiere bide publikorako azterketan daudenei buruz.

Esku hartzeko proposamenak material mugikorra, autobus-geltokiak eta erreserbatutako aparkalekuak egokitzeko beharrezkoak diren esku-hartzeak baino ez ditu jasotzen.

Erreserbatutako aparkalekuen egungo egoera aztertzeaz gain, egungo araudian jasotako irizpideak aplikatzearen ondorioz (Plaza 1 40ko edo frakzio bakoitzeko), ORMAIZTEGIIn dauden erreserbatutako aparkaleku-plazen guztizko kopuruaren arabera, behar diren plazen kopuruaren azterketa ere egiten da. Halaber, plaza horiek non jarriko diren kalkulatzeko proposatzen da, biztanleria guztiarentzat baliagarriak izan daitezen.



Edonola, autobus geltoki eta aztertutako erreserbatutako aparkaleku plazak ondorengo hauek dira (planoak dagokien atalean daude)

**Autobus geltokiak:**

PB01 SAN ANDRES KALEA, 11

PB02 ZUMARRALDE KALEA, 2

**Mugikortasun mugatua duten pertsonentzako erreserbatutako aparkalekuak:**

AR01 Berjaldegi plaza, 1  
AR02 Eztanda ertz kalea, 1  
AR03 Eztanda ertz kalea, 1  
AR04 Gabirialde kalea, 13  
AR05 Gabirialde kalea (aparkalekua)  
AR06 Ibaialde kalea, 4  
AR07 Ibaialde kalea, 21  
AR08 Maira plaza, 3  
AR09 Muxika Egurastokia  
AR10 San Andres kalea, 23  
AR11 San Andres kalea, 27  
AR12 San Andres kalea, 27 bis  
AR13 Tomas Zumalakarregi hiribidea, 2  
AR14 Tomas Zumalakarregi hiribidea, 4  
AR15 Tomas Zumalakarregi hiribidea, 8  
ARNI01 GIZARTE ETXEA  
ARNI02 HILERRIA  
ARNI03 RENFE  
ARNI04 PB SAN ANDRES  
ARNI05 PB ZUMARRALDE

### 3.-EGUNGO EGOERAREN ANALISIA ETA DIAGNOSIA

ORMAIZTEGIKO Irisgarritasun Unibertsaleko Plan Integral honen sarrerako liburukian deskribatu dugun bezala, udalerrria Gipuzkoako Goierri eskualdean dago. ORMAIZTEGI Donostiatik 48 km-ra dago, eta harekin A-636 eta A1 (N1) errepideen bidez komunikatzen da.

Bere eskualdean, Goierriko (Beasain-Ordizia konurbazioa) eta Urola Garaiko (Zumarraga-Urretxu konurbazioa) eskualde-buruen bide erdian dago.



Beraz, ORMAIZTEGIren kokapenak sarbide ona du gertuko eskualde- eta probintzia-mailako bide-saretik, herritarrek ondasunak eta zerbitzuak eskuratzeko behar dituzten harreman funtzional nagusiei balio baitie.

Gainera, lehen esan bezala, RENFERen Donostiako aldirietako lineak sarbidea ematen die probintziako ekialdeko ardatzeko gune nagusiei, trenbidearen bidez. Hala, Donostiatik eta Donostiarako joan-etorriak RENFERen aldiriko linearen bidez egiten dira, baita Gasteizetik harremanak ere (eskualdeko linea, Beasainen edo Zumarragan barrena). Bizkaiarekiko harremana Bilborekin lotzen duen autobus-linea baten bidez egiten da.

Horrela, garraio publikoaren sistemak egun dauden harreman funtzional horiei nagusiki jarraitzen die. ORMAIZTEGI zerbitzatzen duten bi autobus linea daude, Lazkaorekin lotzen dutenak, herri mugakideekin eta Zumarragako ospitalearekin. Donostia eta Bilbo barnealdeko herrien bidez lotzen dituen lurralde arteko beste linea batek geltokia du udalerrian.

Garraio-beharra begi-bistakoa da, udalerraren tamaina dela-eta, udalerrian eskaintzen zailak diren zenbait zerbitzu baitaude (erosketak, askotariko kudeaketak, goi-mailako hezkuntza, aisialdia...). Lanaldiarekin lotutako joan-etorri ugari ere badaude. Ondorioz, egoera horrek eguneroko joan-etorriak eragiten ditu udalerritik herritarren lantokietara, eta, zalantzarik gabe, eragina du herritarren garraio-beharretan. Halaber, udalerriko industria-ehunari esker, beste herri batzuetako pertsonak ORMAIZTEGIra joaten dira lan egitera.

Aipatutako garraio beharren jatorriaren arrazoiengatik, batez ere, ibilgailu pribatua erabiltzen da, bereziki autobus-lineek erabiltzen ez dituzten zirkulazioetan. Nolanahi ere, gaur egun, ibilgailu pribatuan oinarritutako garraio-sistemen gainbehera eztabaidaezina da, hainbat arrazoi direla medio (funtzionalak zein ingurumenekoak), eta horrek guztiak egungo garraio publikoko estrategietara birbideratzen gaitu, eta estrategia horiek ez dute beti betetzen pertsona ororentzat zerbitzatzeko irizpidea.

Irisgarritasun Planari begira, udalerriko hirigunearen barruan dauden garraio-elementu guztiei buruzko datuak bildu dira, hau da, autobus-geltokiei eta erreserbatutako aparkalekuei buruzkoak. Guztira **17** garraio-elementu jaso dira, eta taula honen arabera multzokatu dira:

<b>AZTERTUTAKO GARRAIO ELEMENTUAK</b>	
<b>Autobus geltokiak</b>	<b>2</b>
Markesinadun ohiko autobus geltokia	1
Geltoki-zutoindun ohiko autobus geltokia	-
Seinaleztatu gabeko geltokia	1
<b>Erreserbatutako aparkalekuak</b>	<b>15</b>
Baterian	11
Linean	4
<b>TOTAL</b>	<b>17</b>

Autobus-geltoki bakoitzerako zerbitzatutako biztanleen kopurua ez da zifra adierazgarri bat (geltoki bat 626 biztanleko, udalerrian dauden 2 geltokiak kontuan izanik).

Aldiz, 82 biztanleko erreserbatutako aparkaleku bat dago, eta kopuru hori dezente egokiagoa da. Baina horietako bakoitzarentzat ezarritako eragin-eremua autobus-geltokiena baino txikiagoa da (eta hala izan behar du), eta, beraz, bakoitzaren kokapena eta eragin-eremuaren analisia izango dira erabakigarriak pertsona desgaituentzako erreserbatutako aparkaleku kopurua nahikoa den ala ez zehazteko.

Lortutako datuak aztertuta, proposamenak egin ahal izan dira, eta hauetatik garraioaren eremuko esku- hartzeen aurrekontuak.

Kapitulu honetan, garraio-elementu horien egoera eta ezaugarriak aztertuko ditugu, eta behatutako oztopoak eta gabeziak deskribatuko ditugu, eta baita bete behar dituzten irisgarritasun baldintzak ere.

### 3.1.- Autobus-lineak

Honako Irisgarritasun Plana egiteko unean, adierazi dugun bezala, ORMAIZTEGI hiriarteko **1au** autobus-lineak zerbitzua ematen dute, Lurraldebusen esku daude, Gipuzkoako Garraio Partzuergoaren esparruan. Horietako bat PESAk kudeatzen du, eta udalerrria Bergara, Durango eta Bilborekin lotzen du.

ORMAIZTEGIN geltokia duten lineak honako hauek dira:

GO05- Lazkao- Ordizia- Beasain-ORMAIZTEGI- Ezkio-Zumarraga

GO06- Gabiria- ORMAIZTEGI- Itsaso-Ezkio-Zumarraga

GO41G (autobús nocturno, circula los sábados) - Zaldibia –Legorreta- Itsasondo- Ordizia- Beasain- ORMAIZTEGI- Lazkao- Ataun- Ihurre –Idiazabal- Segura –Zegama.

DO03- Donostia/San Sebastián- Tolosa-Beasain- ORMAIZTEGI- Zumarraga-Bergara- Elorrio- Abadiño-Durango-Bilbo

Linea horiek Gipuzkoako Garraio Partzuergoan, Lurraldebusen, egoteagatik abantaila garrantzitsuak ditu aspalditik. Mugi txartela Gipuzkoako autobusetan, Euskotrenen eta Renfen erabili daiteke. Horrek deskontuak ahalbidetzen ditu sare integratu osoko bidaia guztietarako, eta garraio kolektiboaren sarea hobetzeko pizgarririk onenetako bat izan da.


## 3.2.- Autobus geltokiak

Udalerriri zerbitzua eskaintzen dizkien autobus geltokien analisia, ezinbestez, bide publikoaren azterketaren ondorioetara lotuta egon behar da.

Ez du ezertarako balio pertsona ororentzat erabat egokitutako autobus geltokiak izateak, baldin eta bide publikotik egiten diren sarbideak ez badaude egokituak, edo nekez erabil badaitezke herritar askorentzat.

Honako Planaren Bide Publikoari buruzko Liburukian, azaltzen dira ezinbestekotzat hartu ditugun esku-hartzeak,ORMAIZTEGIn dauden geltokietara pertsona oro iritsi ahal dezan.

Behin ibilbide irisgarriak sortzeko esku-hartzeak gauzatu direnean (espaloiak zabaldu edo eraiki, arrapalak eraiki, eta abar), geltokien kopuru eta kokapen egokiena birpentsatu beharko da, zerbitzu egokiagoa eman ez ezik, erabat irisgarriak izateko.



Momentu hori iristen den bitartean, eta Irisgarritasun Plan honi dagokionez, geltokien egungo analisira mugatuko gara, eta beharrezkoak diren esku-hartzeetara, geltokiak irisgarritasun araudira egokitzeko.

Dagokion planoan (ikusi Dokumentazio Grafikoa), aztertutako autobus geltokiak eta garraio publikoaren eragin-eremuaren xehetasunak adierazten dira. 200 m-ko erradioa hartzen da autobus-geltokietarako ezarritako eragin-eremutzat.

Plano horretan ikus daitekeenez, autobus-geltokien eragina hiri-bilbe osora hedatzen da ia, eta, agian, udalerraren hegoaldea pixka bat alboratuta geratzen da, tren-geltokitik gertu.

Dauden geltokien irisgarritasunari berari dagokionez, aipatu behar da ORMAIZTEGIN aztertutako bi geltokietatik batek ez dutela inolako seinaleztapenik eta besteak markesina dutela. Hala ere, esan behar da, oro har, eta geltoki bakoitzean dauden berezitasunak gorabehera (ikusi geltoki bakoitzaren txostenekin batera doan eranskina), atzemandako irisgarritasun-arazo nagusiak geltokietan seinale egokiturik ez egoteari eta markesinen barruan euskarri iskiatikorik ez egoteari dagozkiola.



Adierazi gabeko geltokia



Markesinadun geltokia

Markesinan jasotzen den informazioak ez du betetzen araudian ezarritako parametroak: letraren tamainari, erliebeari, brailleari, kontrasteari eta abarri buruz, eta, gainera, kokapenaren altuera ez da egokiena.

### **3.3.- Erreserbatutako aparkaleku plazak**

Jarraian, ORMAIZTEGIN dauden erreserbatutako aparkalekuen egungo egoera aztertuko dugu. Adierazi behar da Irisgarritasuna Sustatzeko 20/1997 Legeak ezartzen duela aparkaleku erreserbatuak 250m baino gehiagoko distantziarik ez izateko moduan kokatuta egon behar dutela. Horren arabera, plaza bakoitzaren eragin-eremua 125 m-koa da.



Dagokion atalean (Dokumentazio grafikoan), aztertutako erreserbatutako aparkalekuen kokapena irudikatzen duen plano bat aurki daiteke, baita plaza horien eragin-eremuaren xehetasuna ere. Hirigunea geografikoki ondo hornituta dagoela ikus daiteke, baina udalerrriaren iparraldean gabeziak daude, baita hegoaldean ere, hilerritik eta tren-geltokitik gertu.

Gaur egun ORMAIZTEGIn mugikortasun arazoak dituzten pertsonentzako erreserbatutako aparkalekuetan antzemandako arazo nagusiak aparkaleku erreserbatutako seinale bertikalik ez egoteari dagozkio.



Gainera, atzemandako erreserbatutako aparkaleku askok ez dituzte araudian ezarritako neurriak betetzen (5,00 x 3,70 metro gutxienez bateriako aparkalekuetarako, eta 5 m gehi 1,5 m transferentziarako, 6,50 metro luze dira lineako aparkalekuen kasuan, baldin eta, zailtasun-arrazoiengatik, gutxieneko zabalera izan ezin badute eta gainerako plazen zabalera egokitu behar badira), eta, hortaz, txikiegiak dira.



Azkenik, adierazi behar da aztertutako 15 aparkaleku erreserbatuetatik 1ek arauan ezarritako parametroak betetzen dituela eta ez duela inolako esku-hartzerik behar. Alboko transferentzia-gunea behar duen plaza da, ondoko plazan proposatzen dena.

## 4.- JARDUKETA - PLANA

### 4.1.- ESKU-HARTZE PROPOSAMENA

Jarduketa proposamena irisgarritasun Planaren garraio- elementuetarako proposatutako esku-hartzeak osatzen dute (autobus geltokiak eta erreserbatutako aparkaleku plazak), eta Irisgarritasun Planaren barnean gauzatuko dira. Halaber, erreserbatutako aparkaleku berrien kokapena ere planaren aurrekontuan sartzen da.

Garraioan esku-hartze proposamena egiteko 17 elementu aztertu dira: 2 autobus-geltoki eta 15 aparkaleku erreserbatu. Udal teknikariek kontsultatu ondoren, elementu horiek guztiak Irisgarritasun Unibertsaleko Plan Integralaren lehentasunetan sartu dira, udalerrriaren irisgarritasunari begira duten garrantziagatik eta egokitzeko kostu nahiko txikia ikusita.

#### 4.1.1.- Autobus geltokiak

Taula honetan **autobus geltokiak**, bakoitzean egin behar diren lanen aurrekontua eta geltoki bakoitzaren portzentajea, inbertsioen gauzatze materialaren aurrekontu osoarekiko, azaltzen dira,

<b>Autobus geltokiak</b>	<b>Osoa</b>	<b>%</b>
PB1 San Andres kalea, 11	1.552,00 €	47,64%
PB2 Zumarralde kalea, 2	1.706,00 €	52,36%
<b>GUZTIA</b>	<b>3.258,00 €</b>	<b>100,00%</b>

ORMAIZTEGIko geltokiak hobetzeko proposamenak, nagusiki, geltokietan seinale eta informazio egokia jartzean datza, markesina egokituz (berme iskiatikoa, informazioa...), informazio garrantzitsuena modu eskuragarrian erakusteko. Markesinarik gabeko geltokiaren kasuan, geltoki zutoin egokitua jartzea proposatzen da.

Gainera, ikusmen-urritasunak dituzten pertsonak geltokia non dagoen detektatzeko zoladura-zerrenda seinalizatzailea jartzea proposatzen da, baita geltokiko zintarriaren ondoan ikusmen-zerrenda hori ukigarri bat jartzea ere, 1544/2007 Errege Dekretuak ezartzen duen bezala.

Hurrengo taulan esku-hartzeen aurrekontuaren laburpen bat ikus dezakegu. Horrela, geltokietako esku-hartzeen guztizko aurrekontuan kontzeptu horietako bakoitzak hartzen duen garrantzia ikus daiteke.

<b><u>Esku-hartzea</u></b>	<b><u>Alea</u></b>	<b><u>Guztira</u></b>	<b><u>%</u></b>
Berme iskiatikoa jartzea (hornidura barne).	1	423,00 €	12,98%
Geltokiko zutoin egokitua jartzea, (hornidura barne)	1	508,00 €	15,59%
Markesinan informazio eta seinaleztapen egokitua jartzea	1	355,00 €	10,90%
Zintarriaren ondoan zerrenda hori ukigarria jartzea, metroa.	12	696,00 €	21,36%
Zoladura-zerrenda seinalizatzaile ukigarria jartzea, hornidura barne.	22	1.276,00 €	39,17%

Taulan ikus daitekeenez, zoladura-zerrenda seinalizatzailea jartzea da eragin ekonomiko handiena duen esku-hartzea, autobus-geltokietan irisgarritasuna hobetzeari dagokionez. Halaber, ukipen-zerrenda horiak zintarrian jartzeko ehunekoa nahiko handia dela ikus daiteke.

### 4.1.2.- Erreserbatutako aparkalekuak

Erreserbatutako aparkalekuei dagokienez, taula honetan jasotzen da aparkalekuen zerrenda eta horietako bakoitzean egin beharreko esku-hartzeen aurrekontu osoa, eta aparkalekuetan egindako inbertsioen gauzatze materialaren aurrekontu osoaren gaineko ehunekoa. Lehendik dauden aparkalekuak eta proposatzen diren berriak azaltzen dira.

<b>Erreserbatutako aparkalekuak</b>	<b>Osoa</b>	<b>%</b>
AR01 Berjaldegi plaza, 1	207,00 €	2,77%
AR02 Eztanda ertz kalea, 1	53,00 €	0,71%
AR03 Eztanda ertz kalea, 1		
AR04 Gabirialde kalea, 13	48,00 €	0,64%
AR05 Gabirialde kalea (aparkalekua)	159,00 €	2,12%
AR06 Ibaialde kalea, 4	588,00 €	7,85%
AR07 Ibaialde kalea, 21	48,00 €	0,64%
AR08 Maiora plaza, 3	207,00 €	2,77%
AR09 Muxika Egurastokia	747,00 €	9,98%
AR10 San Andres kalea, 23	159,00 €	2,12%
AR11 San Andres kalea, 27	48,00 €	0,64%
AR12 San Andres kalea, 27 bis	159,00 €	2,12%
AR13 Tomas Zumalakarregi hiribidea, 2	207,00 €	2,77%
AR14 Tomas Zumalakarregi hiribidea, 4	48,00 €	0,64%
AR15 Tomas Zumalakarregi hiribidea, 8	48,00 €	0,64%
ARNI01 GIZARTE ETXEA	952,00 €	12,72%
ARNI02 HILERRIA	952,00 €	12,72%
ARNI03 RENFE	952,00 €	12,72%
ARNI04 PB SAN ANDRES	952,00 €	12,72%
ARNI05 PB ZUMARRALDE	952,00 €	12,72%
<b>GUZTIRA</b>	<b>7.486,00 €</b>	<b>100,00%</b>

Erreserbatutako aparkalekuak egokitzeko behar diren esku-hartze motei dagokienez, ondorengo taulan jaso dira.

<b>Esku-hartzeak</b>	<b>Unitateak</b>	<b>Guztira</b>	<b>%</b>
Alboko transferentzia gunek partekatua margotzea	1	53,00 €	0,71%
Aparkaleku erreserbatu berri bat sortzea	5	4.760,00 €	63,59%
Aparkalekuaren mugak birmarraztea	10	480,00 €	6,41%
Colocación de señal vertical de prohibición de aparcamiento.	2	318,00 €	4,25%
Espaloi-ertza beheratzea	2	1.080,00 €	14,43%
Ez dago inolako lanik egin beharrik	1	0,00 €	0,00%
Nazioarteko irisgarritasun sinbolodun seinale bertikala jartzea	5	795,00 €	10,62%

Taulan ikus daitekeenez, ez dira esku-hartze asko egin behar aparkalekuak dagokion araudira erabat egokitzeko. Gainera, aparkaleku-plaza berriak sortzea aurrekontu osoaren ia % 65 da, eta horrek berresten du dauden plazek esku-hartze gutxi behar dituztela.

Dauden plazetan egin beharreko esku-hartzeen artean, espaloi-ertza beheratzea nabarmentzen da, aurrekontuaren ia %15 izanik.

### **4.1.3.- Aparkaleku erreserba plana**

Lehendik dauden aparkaleku erreserbatuen egungo egoeraren azterketaz eta horiek hobetzeko eta egokitzeko proposamenez gain, kapitulu honetan aparkaleku erreserbatu berriak sortzeko proposamen bat ere egiten da, aplikatu beharreko araudian horri buruz ezarritako eta aurreko kapituluan jasotako irizpideen aplikazioan oinarrituta.

Erreserbatutako plazen banaketa udalerrian orekatua izan behar da, eta aurreikusitako plazen eragin-eremuak, aldi berean, interesa duten eraikinetan eta udalerriko bizitegirako auzoak barne hartu behar ditu. Komeni da gogoraraztea erreserbatutako plazak erabilera publikoa dutela, eta ez direla inoiz erabiltzaile jakin batentzat.

Irigarritasuna Sustatzeko 20/1997 Legearen arabera, ibilgailu arinak aparkatzeko eremu guztietan, bai bide publikoan, bai eraikinetan aparkalekuetan eta garajeetan, 40 plazako edo zatikiko gutxienez plaza bat egongo da etengabe erreserbatuta mugikortasun urria duten pertsonak garraiatzen dituzten ibilgailuentzat.



Dagokion planoan (ikusitako Dokumentazio grafikoa), goian aipatutako irizpideetan oinarrituta, eta erreserbatutako bi plazaren artean egon behar duen gehieneko distantziari eutsita (250 m), Udalari plaza horiek kokatzen lagundu behar dioten eremuak adierazten dira.

Halaber, dagokion planoan (Dokumentazio grafikoa), aparkaleku plaza bakoitzaren eragin-eremuak azaltzen dira, udalerriko erdigune osoa eta aztertutako guneak estali arte. Honela, orokorrean aparkaleku eremuen kokapena kontuan izan gabe, Udaletxeak jakingo du gune bakoitzeko erreserbatutako plaza bat jarri beharko duela, nahiz eta gomendagarria izan plaza hauek eraikin publiko eta interes-guneetatik gertu egotea.

Irizpide hauek aplikatuz, **5 erreserbatutako plaza berri** kokatzea proposatzen da, udalerriko eremu zabalek ez daitezkeen erreserbatutako plaza -eremutik kanpo geratu, eta eraikin publikoei zerbitzua eman dezaten.

Erreserbatutako plaza berriak sortzeko aurrekontuari dagokionez, bakoitzarentzat balioetsitako aleko prezioa 952,00€-koa da. Beraz, ORMAIZTEGIIn, **5 plaza** proposatzen direnez, aurrekontu totala **4.760,00 €**-koa izango da.

#### 4.1.4.- Laburpena

Autobus-geltokietan, erreserbatutako aparkalekuetan eta aparkaleku berriak ezartzeko planean proposatzen diren esku-hartzeen aurrekontuen batuketatik ondorioztatzen da Irisgarritasun Planaren garraioari buruzko inbertsioen gauzatze materialaren aurrekontu osoa.

Garraioa	Guztira (GMA)
Autobus geltokiak	3.258,00 €
Aparkalekuak	2.726,00 €
Aparkaleku berriak	4.760,00 €
<b>Guztira</b>	<b>10.744,00 €</b>

## 4.2. LEHENESTEKO IRIZPIDEAK

Autobus-geltokietan eta erreserbatutako aparkalekuetan esku hartzeko, lehentasun-irizpidea ekonomikoa baino ez da; izan ere, esku-hartze horiek ez dira oso garestiak, baina hobekuntza handia dakarte zerbitzu horietara iristeko eta horiek erabiltzeko.

Beraz, esku-hartze horiek eragin ekonomiko txikia dutenez (oso garrantzitsuak dira), proposatzen da autobus-geltokietan, erreserbatutako aparkalekuetan eta plaza berrien ezarpenean egokitzea 1. etapan egitea, lehentasunezkoa, esku-hartze horien gaineko jarduketa guztiak aldi berean egin daitezzen, eta udalerrria ahalik eta lasterren hurbiltzea geltoki egokituen, aparkaleku egokituen eta legeak ezarritako aparkaleku-erreserba egokituen kopurura (40 edo frakzio bakoitzeko 1).

Plana lau urtekoa da, baina geralekuak eta aparkalekuak egokitzeko aurrekontua txikia denez, eta autobus-geralekuak eta mugikortasun urriko pertsonentzat gordetako aparkalekuak lehenbailehen egokitzea oso interesgarritzat jotzen denez, lehentasunezko etapan esku-hartze guztiak sartzea erabaki da.

## 4.2. ETAPA PLANA

Etapa planak urteko jarduketa etapak egituratzen ditu, eta irisgarritasuna bermatzeko hurrengo urteetan lehentasuna duten garraio-elementuetan egin behar diren jarduketa guztiak jasotzen ditu, lehentasunak kontuan izanik.

Plana lauhilekoa da, baina geltokiak egokitzeko lanen aurrekontua txikia izanik, eta autobus geltokiak eta mugikortasun murriztua duten pertsonentzako erreserbatutako aparkalekuak egokitzea premiazkoa denez, esku-hartze guztiak lehentasun etapan egotea erabaki da, ahalik eta lehen garraio publikoa biztanleria osoari bermatzeko,

Aipatu behar da Bide Publikorako Ekimen Planean jarraitu behar diren pausuen ordena errespetatzea garrantzitsua den bitartean, koherentzia eta jarraipena izateko proposatutako ibilbideetan, garraioaren kasuan, ordea, ez da horrela. Arlo honetan, nahiz eta gomendagarria izan Etapa Planak ezartzen duen ordena jarraitzea, ordenaren aldaketak, edonolako arrazoiak direla medio, Planaren proposamenaren kalitatea ez da kaltetua izango. Soilik aurrekontu orokorrak aldatuko litzateke.

Liburukiaren bukaeran, aztertutako autobus geltoki eta aparkaleku bakoitzaren txostenak daude, horien ezaugarri nagusienekin, diagnostikoa, jarduketa proposamena, eta egokitzapenen aurrekontu zehatza azaltzen dira.

Udalerrian dauden autobus-geltoki guztiak egokitzea eta erreserbatutako 5 aparkaleku berri sortzea proposatu da, udalerrri batean egon behar den plaza-kopuruari dagokionez Legean ezarritako parametroak betetzera hurbil dadin.

<b>Autobus geltokiak</b>		
PB01	San Andres kalea, 11	1.552,00 €
PB02	Zumarralde kalea, 2	1.706,00 €
<b>Erreserbatutako aparkalekuak</b>		
AR01	Berjaldegi plaza, 1	207,00 €
AR02	Eztanda ertz kalea, 1	53,00 €
AR03	Eztanda ertz kalea, 1	
AR04	Gabirialde kalea, 13	48,00 €
AR05	Gabirialde kalea (aparkalekua)	159,00 €
AR06	Ibaialde kalea, 4	588,00 €
AR07	Ibaialde kalea, 21	48,00 €
AR08	Maiora plaza, 3	207,00 €
AR09	Muxika Egurastokia	747,00 €
AR10	San Andres kalea, 23	159,00 €
AR11	San Andres kalea, 27	48,00 €
AR12	San Andres kalea, 27 bis	159,00 €
AR13	Tomas Zumalakarregi hiribidea, 2	207,00 €
AR14	Tomas Zumalakarregi hiribidea, 4	48,00 €
AR15	Tomas Zumalakarregi hiribidea, 8	48,00 €
ARNI01	GIZARTE ETXEA	952,00 €
ARNI02	HILERRIA	952,00 €
ARNI03	RENFE	952,00 €
ARNI04	PB SAN ANDRES	952,00 €
ARNI05	PB ZUMARRALDE	952,00 €
<b>Gauzatze materialaren aurrekontu osoa (GMA)</b>		<b>10.744,00 €</b>

## 5.- BALORAZIO EKONOMIKOA

Ondoren jasotzen den proposamen ekonomikoak Irisgarritasun Planean inoiz eragina izango luketen kontzeptuak jasotzen ditu, eta zehazki Garraiorako jarduketan aurrekontuetan. Kontuan hartu behar da aurkezten diren aurrekontuak nabarmen murriz daitezkeela proposatutako esku-hartzeei aurreikusitako udal-jarduketako programak gehitzen bazaizkie, hala nola eraberritzeko eta mantentzeko lanak.

Lehenik, komeni da azaltzea momentura arte erabili ditugun datu ekonomikoak bide publikoa irisgarri bihurtzeko beharrezkoak diren esku-hartze materialei buruzkoak baino ez direla. Azken aurrekontuak kalkulatzeko, kontzeptu batzuk sartu behar dira, jarraian azalduko direnak.

Aurkezten den aurrekontua gutxi gorabeherakoa da eta aldaketak izan ditzake gauzatze prozesuan. Nahiz eta aurrekontuan azaltzen diren jarduketa bakoitzean ezustekoen gastuen portzentaje bat kontuan hartu izan, obrak gauzatzerakoan, analisi eta azterketa fasean ziurtatzea posible ez diren baldintzatzaileak sortzen dira. Gainera, aplikatutako aleko prezioak jarduketa orokorreari dagokie eta ez dituzte aintzat hartzen posible diren berezitasunak.

Edonola, aurrekontu hauek egiteko erabilitako prezio-baseak nahiko erkatuak eta egiaztatuak daude, fidagarritasun egokia bermatzeko. Datu baseak idazketa taldeak diseinatu ditu, irisgarritasunari dagokionez erreferentziatzeko prezio base zehatzen gabeziagatik. Horretarako kontsulatu dira arkitektura eta hirigintzako merkatuan aurkitu diren prezio erreferentziak, eta irisgarritasunaren eremuan aplikatutako beste prezio base batzuekin kontrastatu dira.

Irisgarritasun Planeko Lauhileko Garraiorako Ekimenen azken aurrekontua, gauzatze jarduketan aurrekontu totalari zenbait kontzeptu aplikatuz kalkulatu da, eta Gauzatze Materialaren Aurrekontua deituko diogu. Beraz, azken aurrekontuak ondorengo kontzeptuak izango ditu:

1. Lehenik, **Gauzatze Materialaren Aurrekontua (G.M.A.)** fase bakoitzean aurreikusitako jarduketan obra-lanen kostu erreala batzen du, hau da, geltoki eta aparkaleku bakoitzean egin beharreko jarduketan aurrekontua.

2. Bigarrenik, **zerga-oinarria (Z.O.)** kontzeptua dugu, gauzatze proiektuen aurrekontuak egiterakoan kontuan hartzea komeni den beste kontzeptu batzuk batzen dituen. Zerga-oinarria (Z.O) Gauzatze Materialaren Aurrekontuaren gainean kalkulatu da eta Gastu Orokorrak, Etekin Industrialak eta Gauzatze Proiektuen Idazketa eta Obra Zuzendaritza kontzeptuak barne hartzen ditu.
3. Hirugarren atala zergei dagokio eta aplikagarria den **Balio Erantsiaren gaineko Zerga (B.E.Z)** kontuan hartzen da, aurreko ataletako (G.M.A. eta Z.O.) batuketaren emaitzaren gainean kalkulatu dena. Hiru atal horien batuketak udal eraikinen azken aurrekontua osatzen dute.

**Oharra:** Gauzatze Materialaren Aurrekontuaren gaineko ehuneko bat ere kontuan hartu behar da, proiektuak idatzi eta zuzentzeagatiko ordainsari profesionali dagokiena. Ohartarazi behar da ehuneko hori ez dela finkoa, eta ez dagoela ezarrita inongo arauen arabera, ezta kontratatutako teknikari posibleen elkargo profesionalaren arabera ere. Nolanahi ere, edozein esku-hartzetan kontuan hartu beharreko kopurua da.

---

**AUTOBUS GELTOKIAK- PIAUREN AURREKONTUA**


---

**Gauzatze Materialaren Aurrekontua (G.M.A.)**

**EGOKITU BEHARREKO AUTOBUS GELTOKIAK** **3.258,00 €**

<b>Gauzatze Materialaren Aurrekontu Totala (GMA)</b>	<b>3.258,00 €</b>
--	-------------------

**Zerga Oinarria (Z.O.)**

Etekin Industrialak (6%) 195,48 €

Gastu Orokorrak (13%) 423,54 €

**Zerga Oinarri totala (Z.O.)** **3.877,02 €**

**Zergak**

Balio Erantsiaren gaineko Zerga (B.E.Z) 21% **814,17 €**

<b>Autobus Geltokien Aurrekontu Osoa</b>	<b>4.691,19 €</b>
--	-------------------



---

**APARKALEKUAK - PIAUREN AURREKONTUA**


---

**Gauzatze Materialaren Aurrekontua (G.M.A.)**

15	ERRESERBATUTAKO APARKALEKUAK	2.726,00 €
5	APARKALEKU BERRIAK	4.760,00 €

<b>Gauzatze Materialen Aurrekontu Totala (GMA)</b>	<b>7.486,00 €</b>
--	-------------------

**Zerga Oinarria (Z.O.)**

Etekin Industrialia (6%)	449,16 €
Gastu Orokorrak (13%)	973,18 €
<b>Zerga Oinarri Osoa (Z.O.)</b>	<b>8.908,34 €</b>

**Zergak**

Balio Erantsiaren gaineko Balioa (B.E.Z.) 21%	<b>1.870,75 €</b>
---	-------------------

<b>Erreserbatutako Aparkalekuen Aurrekontu Osoa</b>	<b>10.779,09 €</b>
---	--------------------

## GARRAIOA - PIAUREN AURREKONTUA

<u>Gauzatze materialaren aurrekontua</u>	<u>Bus geltokiak</u>	<u>Aparkalekuak</u>	<u>Guztira</u>
Aurrekontu osoa	3.258,00 €	7.486,00 €	10.744,00 €
<b>Gauzatze materialaren aurrekontua</b>	<b>3.258,00 €</b>	<b>7.486,00 €</b>	<b>10.744,00 €</b>
<b><u>Zerga oinarria (Z.O.)</u></b>			
Etekin Industriala (6%)	195,48 €	449,16 €	644,64 €
Gastu Orokorrak (13%)	423,54 €	973,18 €	1.396,72 €
<b>Zerga Oinarri Osoa (Z.O.)</b>	<b>3.877,02 €</b>	<b>8.908,34 €</b>	<b>12.785,36 €</b>
<b><u>Zergak</u></b>			
Balio Erantsiaren gaineko Balioa (B.E.Z.) 21	814,17 €	1.870,75 €	2.684,93 €
<b>Aurrekontua guztira</b>	<b>4.691,19 €</b>	<b>10.779,09 €</b>	<b>15.470,29 €</b>

# ERANSKINA:


## EGUN DAUDEN AUTOBUS GELTOKI ETA ERRESERBATUTAKO APARKALEKUEN TXOSTENAK

Irisgarritasun Plan honen Garraiorako Ekimen Plana egiterakoan, bide publikoan detektatutako geltoki eta aparkaleku erreserbatuen inbentarioa egin da. Egitura horiek zenbakitu eta kodetu egin dira (PB01, PB02 eta abar autobus-geltokietarako, eta AR01, AR02 eta abar aparkaleku erreserbatuetarako).

### **Txostenen egitura:**

Eranskinean jasotako autobus-geltokien eta aparkaleku erreserbatuen txostenek honako eduki hauek dituzte:

